



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Sukarrieta, 2022ko otsailaren 2a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **gas-horniketa azpikontratatzeko**.

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Kontratuak **24 hilabete (2 urte)** iraungo du, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Indarraldia iritsitakoan, kontratua automatikoki luzatuko da, salbu eta alderdietako edozeinek beste alderdiari idatziz adierazten badio hasierako epea edo haren edozein luzapen amaitu baino hilabete bat (1) lehenago. Kontratua, luzapenak barne, ez da 5 urtetik gorakoa izango.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Eskaintza ekonomikoa iragarki honen zerrendan agertzen diren erreferentziekin (BEZa barne hartu gabe) bat datozen aleko zenbatekoen batura izango da. Erreferentzia bakoitzeko lizitazioaren gehieneko prezioa adierazten da. (*10. puntua - Eskaintza ekonomikoa aurkeztea*).

Fakturazioa, eskaera bakoitzeko faktura batekoa izango da, eta jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko dira fakturak.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%35
Hobekuntzak	%10
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5





MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2022ko martxoaren 1eko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko gehigarria jasotzeko**:

AZTI

Irati Velez Barrena

Mail: ivelez@azti.es

AZTI

Jose Mari Emezabal

Mail: jemezabal@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.
Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaitako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatze eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkartzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

- Horniketa AZTIk eskatuta egingo da, **Sukarrietan, Derion edo Pasaian**, eta entregatzeko epea ez da bi egun baliadun baino luzeagoa izango eskaera egiten denetik.

Eskaera bakoitza AZTIk zehazten duen pertsonarekin entregatuko da, eta hornitutako produktuak entregatzeko albarana emango zaio.

- Hornitzaileak, beharrezkoa denean, elikagai-gasak, nahasketak edo erreferentziako zerrendan jasota ez dagoen beste edozein horniketa eman beharko du, AZTIk ezarritako baldintzetan. Iragarkiaren kontsumo-aurreikuspenean zerrendatu gabeko horniduretarako, merkatuko prezioak hartuko dira kontuan.
- Esleipendunak ezin badu eskatutako hornidura AZTIk behar dituen baldintzetan egin, beste hornitzaile batekin egiteko eskubidea izango du.
- Zerbitzuak emateko hornitzaileak AZTIren esku jarriko ditu beharrezko gordailu homologatuak.
- Deskribatutako lanak behar bezala egiten direla ziurtatzeko eta lan horiek ahalik eta arinen definitu eta egiteko (batez ere larrialdi-egoeretan), AZTIko langileek beste lan batzuk egitea ahal den neurrian oztopatu gabe, hornitzaileak, gutxienez, honako hauen berri eman behar du bere eskaintzan:
 - Hornitzailea ordezkatzeko duen harremanetarako pertsona, eta pertsona horrekiko komunikazio-bidea deskribatzen duena (gutxienez telefono mugikorra eta helbide elektronikoa).
 - Instalazioen gutxienezko berrikuspenetarako datak jasotzen dituen egutegia, bai eta AZTIren eskaera gehigarrietarako horiek egiteko gehieneko denbora ere. Gutxienezko berrikuspenak urtekoak izango dira, eta proposatutako egutegiari zorrotz lotuta egingo dira.
 - Matxurak gertatuz gero jarduteko ordutegiak jasotzen dituen protokolo bat.
- Hautatutako enpresak gas-horniduraren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du uneoro.
- Eskaintzaren Memoria Teknikoak lizitazio honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen direla adierazi beharko du, eta Memorian Hobekuntzen atal espezifiko bat erantsiko da, edo zalantzarik gabe adieraziko dira eskaintzaileak hobekuntzatzat jotzen dituen ekarpenak, AZTIk baloratzeko.

- Hornitutako botila guztiek honako zehaztapen hauek bete beharko dituzte:
 - Gasak erabiltzean segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko, botila guztiek palanka bidez edo antzeko sistema ergonomiko bat izango dute azkar irekitzeko (edo itzulerako gailua), bai eta presioa adierazteko manometro bat ere, botilaren egoera erraz egiaztatzeko. Kanpoan geratuko dira orratz- edo eserleku konikoko itxitura edo irekiera proportzionala duten balbula-botilak.
 - Gainera, emaria mugatzeko sistema integratu bat izango dute, presio handiko irekiera segurua bermatzeko, bai eta itzuleraren aurkako balbula bat ere, kutsadura saihesteko.
 - Botila bakoitzari erantsitako etiketak gasaren kalitateari buruzko zehaztapenak (garbitasuna, gehieneko ezpurutasunak...), lote-zenbakia, iraungitze-data eta erabiltzeko aholkuak betetzen direla ziurtatzen duen informazioa jasoko du.

10. ESKAINTZA EKONOMIKOA AURKEZTEA

Lizitaztaileek taula honen arabera aurkeztu beharko dute eskaintza ekonomikoa.

➤ Kontsumoko aurreikuspena:

AZTI	Urteko kontsumoa, gutxi gorabehera	U/M	Aleko gehinezko prezioa	Aleko eskaintza prezioa
Nitrógeno Líquido	12.562,00	m3	0,20 €	
Cuota criogénica	12,00	mes	56,00 €	
Alquiler Tanque Nitrógeno Líquido	12,00	mes	300,00 €	
Cuota Materias Peligrosas	19,00	entrega	75,00 €	
CO2 industrial tamaño B50 (Capacidad 35kg, 49,5 bares)	1,00	kg	1,44 €	
Argón Calidad 99,999% tamaño B50 (Capacidad 10,5 m3, 200bar)	52,50	m3	12,50 €	
Argón Calidad 99,999% tamaño B10 (2,1 m3, 200 bar)	1,00	botella	88,10 €	
Hidrógeno Calidad 99,999% tamaño B50 (Capacidad 8,8 m3, 200bar)	1,00	m3	14,43 €	
Helio Calidad 99,999% tamaño B50 (Capacidad 9,1 m3, 200bar)	646,00	m3	25,00 €	
Nitrógeno Calidad 99,999% tamaño B50 (Capacidad 9,4 m3, 200bar)	56,00	m3	12,00 €	
Nitrógeno Calidad 99,999% tamaño B10 (Capacidad 1,9 m3, 200bar)	1,00	m3	30,00 €	
Aire Calidad 99,999% tamaño B50 (Capacidad 9,9 m3, 200bar)	108,00	m3	12,00 €	
N2O calidad 99,6% tamaño B50 (Capacidad 35kg, 45 bares)	1,00	kg	11,00 €	



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

AZTI	Urteko kontsumoa, gutxi gorabehera	U/M	Aleko gehinezko prezioa	Aleko eskaintza prezioa
N2O calidad 99,6% tamaño B50 (Capacidad 7kg, 45 bares)	1,00	botella	180,00 €	
Oxígeno Calidad 99,995% tamaño B50 (Capacidad 10,6 m3, 200bar)	42,00	m3	18,00 €	
Acetileno Calidad 99,6%, tamaño B42 (Capacidad 6,5 kg)	1,00	kg	14,00 €	
CO2 calidad 99,998% tamaño B50 (Capacidad 35kg, 49,5 bares)	35,00	kg	10,00 €	
Hielo Seco (caja de 10kg)	70,00	kg	2,00 €	
Nitrógeno Líquido en pequeños recipientes	8,00	m3	6,00 €	
Formingas 5 B50	1,00	m3	6,75 €	
Servicio entrega hielo seco	7,00	UN	20,00 €	
Servicio entrega botella pequeña	10,00	UN	10,00 €	
Servicio entrega botella grande	98,00	UN	10,00 €	
Cuota Pre-Botellas	98,00	UN	2,00 €	
Cuota Pre-bloques y otros recipientes	7,00	UN	2,00 €	
Cuota Pre-Servicio de transporte		UN	20,00 €	
Alquiler Anual Botellas	36,00	ANUAL	60,00 €	

Gasen purutasuna aldatu ahal izango da, baldin eta AZTIk hala eskatzen badu; oro har, aurreko koadroaren garbitasuna eskatuko da.

Oro har, hornitutako gasek zehaztaperen fisiko-kimiko hauek beteko dituzte:

- Hezetasuna (H₂O) < 3 ppm-mol
- Oxigenoa (O₂) < 2 ppm-mol
- Hidrokarburoak guztira (C_nH_m) < 0,5 ppm-mol
- Gutxieneko guztizko purutasuna < % 99,999
- Iraungitze-epaia: 60 hilabete

Botila guztiek honako zehaztaperen hauek izango dituzte:

- Produktuaren etiketak, produktuaren espezifikazioekin, lote-zenbakiarekin, iraungitze-eparekin eta erabilera-aholkuekin.
- Segurtasun-etiketak
- Balbula eta konexioak, araudi aplikagarriaren arabera.
- Indarreko legeriak eskatzen duen beste edozein.